

emeri ta ezabazoz



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

sortu

ESPACIO

FUTURE

Galderak

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

berrikuntza

CREATION

SOCIEDAD

30%

60%

UPV/EHU

ideas

Preguntas??

Sarapena

Solución

Learning



Ikasi

UPV/EHU
2018/2019

unibertsitatera sartzeko bideak

www.ehu.eus

literature



Oharra: 2018/2019 ikasturtean unibertsitatean sartzeko gidaliburu hau informazio-iturria baino ez da. Ez du legezko baliorik eta, beraz, ezin da erabili errekurtsoen oinarri gisa.

Interneteko helbidea: <http://www.ehu.eus>

AURKIBIDEA

Errektorearen aurkezpena	4
1. Graduiko ikasketa ofizialetara sartzeko era	5
— Batxilergotik sartzea	6
— Goi mailako heziketa zikloetatik sartzea	10
— 25 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea	16
— 45 urtetatik gorakoak unibertsitatera sartzeko bidea	19
— Lan esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea	21
— Beste hezkuntza sistema batzuetatik datozen ikasleak	24
2. UPV/EHUn sartzeko prozedura	26
— Sarbide motak eta dokumentazioa	27
— Gordetako plazak	28
— Izena ematea eta onarpena	29
— Sarrera proba espezifikoak dauzkaten graduatarako sarbidea	30
— UPV/EHUn sartzeko tramiteen 2018/19 ikasturteko egutegia	31
— Aurreko ikasturteko plaza kopuruak eta gutxieneko nota	32
— Ikasketa desberdinak aldi berean egitea	36
— Espedienteen lekualdaketa	36
3. UPV/EHUko ikastegiak eta titulazioak	37
4. Informazio orokorra	45
— Sarbide bulegoak	46
— UPV/EHUko zenbait zerbitzu	46
— Bekak	47
— Unibertsitate Orientazioko Azokak	48
— Ateak Zabaltzeko Egunak	48
— Prezio publikoak	48

ERREKTOREAREN AURKEZPENA

Lehendabizi, zorionak Euskal Herriko Unibertsitatera (UPV/EHU) etortzea erabaki duzulako zure ikasketa unibertsitarioak gurean egiteko. Oso erabaki garrantzitsua da. Ahal dugun guztia egingo dugu gudan jarri duzun konfiantzaren parean egoteko eta erantzunik onena emateko zure kezka pertsonalei eta zure asmo profesionaleri.

Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketarako bokazio handia du eta irakaskuntzarako eredu berezia darabil (IKD eredu). Gure unibertsitatea ondo sustraitua dago euskal kulturari eta aldi berean mundu zabalari begira, eta kultura guztiekin harremanetan. Irakaskuntzan eta ikerketan bikaina izan nahi duen unibertsitatea gara. Bestalde, UPV/EHU oso erakunde handi eta konplexua da, baina era berean, gertukoa eta atsegina. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, hiru campusetan banatua dago eta hamarnaka mila lagun etortzen gara egunero bertan ikastera eta ikertzera.

Gauzak horrela, garrantzitsua da zuk haren egitura ere ezagutzea. Hori izango duzu modurik onena unibertsitateak eskaintzen dizkizun aukera guztiak baliatzeko eta tokia aurkitzeko zure premia, sentsibiltate eta interes guztietarako. Zuri horretan laguntzea da gidaliburu honen helburua. UPV/EHUren «mapa» bat da zinez, bertan mugitzen lagunduko dizuna. Ziur naiz honen bidez gure unibertsitatea ezagutzera helduko zarela, eta zure ibilbidearen zati honetan baliagarri izango zaizkizun gauzak deskubrituko dituzula.

Ongi etorri UPV/EHUrako eta zorterik onena izan dezazula.

NEKANE BALLUERKA LASA
UPV/EHUko Errektorea

1

GRADUKO IKASKETA
OFIZIALETARA SARTZEKO ERA

BATXILERGOTIK SARTZEA

Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa (USE)

USEk bi fase izango ditu: Sarbide fasea eta Onarpen fasea.

Sarbide fasea nahitaezkoa da eta, gaindituz gero, graduko unibertsitate ikasketetara sartzen da.

Onarpen fasea borondatezkoa da eta gradu baterako onarpen nota hobetzea dauka helburu.

Bi faseetako ariketak 90 minututan luzatuko dira. Ariketa bakoitzaren kalifikazioa 0 eta 10 arteko izango da. Bi aukera izango dituzte eta ikasleak horietatik bat hautatu beharko du. Edozelan ere, aukera itxiak izango dira.

Sarbide fasea

Ariketa hauek izango ditu:

1. Gaztelania eta Literatura II.
2. Euskara eta Literatura II.
3. Espainiako Historia.
4. Atzerriko hizkuntza II: ingelesa, frantsesa edo alemana.
5. Batxilergoko 2. mailako modalitateko nahitaezko gaia:
 - Zientziak: Matematika II.
 - Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak, ibilbidearen arabera:
 - Giza Zientziak: Latina II.
 - Gizarte zientziak: Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.
 - Arteak: Artearen Oinarriak II.

Sarbide faseko kalifikazioa ariketa guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da, hiru zifra dezimalekin eta milarenera biribilduta.

Onarpen fasea

Borondatezkoa da. Ikasleak edozein gai aukeratu eta etsamina egin ahal du batxilergoko bigarren mailako enborreko aukerazko irakasgaien artean, gehienez, lau. Nota igotzeko ere balio

ahal dute sarbide fasean egindako gaietako batzuek. Fase hone-
tan egindako gaietan lortutako nota kontuan hartzeko, ikasleak
5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu eta euren denbora-balioa
onarpen faseko gai guztien bezalakoa izango da.

Onarpen faseko kalifikazioa, proba gainditu eta hurrengo bi
ikasturteetan ere erabili ahal izango da unibertsitatara sartzeko.

Izena ematen duenean, ikasleak adierazi beharko du zein
irakasgairen etsamina egingo duen Onarpen fasean, bigarren atal
hau egingo badu.

Gai baten ariketak berak izango dira Sarbide fasean nahiz
Onarpen fasean. Bi aukera izango dituzte eta ikasleak horietatik
bat hautatu beharko du. Edozelan ere, aukera itxiak izango dira.

Ariketak honela banatuko dira:

	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	
08:45-09:00	Aurkezpena			
09:00-10:30	Euskara eta Literatura II	Gaztelania eta Litera- tura II	09:00-10:30	Atzerriko Hizkuntza II (Ingelesa)
10:30-11:15	Atsedaldia		10:30-11:15	Atsedaldia
11:15-12:45	Espainiako Historia	Matematika II Geografia Artearen Oinarriak II	11:15-12:45	Fisika Arte eszenikoak Atzerriko Hizkuntza II (Alemana, Frantsesa)
12:45-15:00	Atsedaldia		12:45-13:30	Atsedaldia
15:00-16:30	Kimika Latina II Diseinua	Biologia Artearen Historia Grekoa II	13:30-15:00	Filosofiaren Historia
16:30-17:15	Atsedaldia			
17:15-18:45	Gizarte Zientziei Aplikaturako Matema- tika II Marrazketa Teknikoa II	Geologia Enpresaren Ekonomia Ikus-entzunezko Kul- tura II		

* Ordu-tegi hau **behin-behinekoa da** eta aldatu ahal izango da.

Deialdiak

Bi deialdi egingo dira:

- Ohikoa: 2018ko ekainaren 6, 7 eta 8an.
- Ezohikoa: 2018ko uztailaren 4, 5 eta 6an.

Matrikulak deialdi baterako besterik ez du baliorik izango. Ohiko deialdian parte hartu duenak, ezohikoan ere aurkeztuko bada, matrikula berria egin beharko du.

Matrikularen tasak: **84,43€**, 2017/06/20ko Aginduaren arabera (2017/06/30eko EHAA)

Proba gainditzeko zer behar den

Batxilergoko notaren eta Sarbide faseko kalifikazioaren artean egindako batez besteko nota haztatuan (%60 batxilergoari dagokio eta %40 Sarbide faseari) 5 puntu edo gehiago lortuz gero, proba gaindituztat joko da, baldin eta ikasleak Sarbide fasean gutxienez **4 puntu** lortu baditu.

Nota hobetzea

Hala nahi badu, ikasleak aukera izango du sarrera nota eta/edo Onarpen faseko edozein gaitan lortutako kalifikazioa hobetzeko. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobe bada. Sarbide fasea gaindituz gero, nota hori gorde egingo zaio ikasleari mugarik gabe; Onarpen faseko notak, berriz, probak egin eta hurrengo bi ikasturteetan gordeko zaizkio, ez gehiago.

Onarpen fasea oraindik ez zegoelarik, Sarbide proba gainditu zutenek aukera izango dute proba honetara aurkezteko, beren nota hobe dezaten. Kasu honetan, Onarpen nota honako formula honen bidez lortuko da:

$$\begin{aligned} \text{Onarpen nota (GON)} &= \\ &= \text{IBK} + \text{K1} \times \text{G1} + \text{K2} \times \text{G2} + \text{K3} \times \text{G3} \end{aligned}$$

IBK = 412/2014 Errege Dekretua baino lehenagoko sARBIDE proban lortutako behin betiko kalifikazioa.

G1, G2 eta G3 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.

K1, K2 eta K3 = Haztapen koefizientea.

Kalifikazioak berrikustea

1. Etsamina berrikusteko eskaria eginez gero, lehenengo zuzenketa egin ez duen zuzentzaile bateko egingo du.
2. Lehenengo eta behin, egiaztatuko du nota kalkulatzeko ez dela errakuntzarik egin eta galdera guztiak zuzendu eta kalifikatu direla.
3. Errakuntzarik ez badago, etsamina zuzenduko du. Kalifikazioa lehenengo kalifikazioaren eta bigarrenaren arteko batez besteko aritmetikoa izango da. Lehenengo eta bigarren zuzenketaren arteko aldea bi puntutatik gorakoa bada, hirugarren zuzenketa egingo da ofizioz. Azken kalifikazioa hiru kalifikazioen arteko batez besteko aritmetikoa izango da.
4. Errakuntzarik badago, zuzendu egingo da eta, ondoren, errakuntzarik ez daukan parte zuzenduko du. Behin betiko nota lortzeko, batez bestekoa egingo da errakuntzarik izan ez duen partearen lehenengo eta bigarren zuzenketen artean eta gehituko zaio errakuntzak zuzentzean lortutako puntuazioa.
5. Berrikusketa denez, behin betiko nota hasierakoa baino txikiagoa edo handiagoa izan daiteke, edo berdina. Eta, hain zuzen ere, errakuntzak zuzentzean litekeena da nota okerragoa lortzea.
6. Epaimahaiak behin betiko nota jasotzeko erabakia emango du eta erreklamazio egileari jakinaraziko dio.
7. Etsaminak berrikusteko prozesua behin bukatuta, epea irekiko da berrikusitako etsaminak ikusteko eskaria egiteko.

Unibertsitateko ikasketak egiteko onarpen nota

Eskari kopurua plaza kopurua baino handiagoa duten graduetan, onarpen nota erabiliko da plazak esleitzeko. Onarpen nota formula honen arabera kalkulatu da:

$$\begin{aligned} \text{Onarpen nota (GON)} &= \\ &= 0,6 \times \text{BK} + 0,4 \times \text{SFK} + \text{K1} \times \text{G1} + \text{K2} \times \text{G2} + \text{K3} \times \text{G3} \end{aligned}$$

- BK = Batxilergoko kalifikazioa.
SFK = Sarbide faseko kalifikazioa.
G1, G2, G3 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.
K1, K2 eta K3 = Haztapen koefizientea. (Ikus 79-82 orr.)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETATIK SARTZEA

- Goi mailako prestakuntza zikloko tituluak unibertsitatera sartzeko eskubidea emango dio ikasleari. Unibertsitaterako sarrera nota (USN) zikloaren batez bestekoa izango da.
- Onarpen nota hobetzeko aukera izango du etsaminako gaietako edozeinetara aurkezteko, enborreko orokorrak barne. Gradurako onarpen nota (GON) kalkulatzeko era batxilergoko ikasleentzako bera izango da.
- Zikloaren familia profesionala lehentasunezkoa izango da berari lotutako jakintza adarreko graduetara sartzeko.

Onarpen nota

Uztailaren 29ko 310/2016 errege dekretuaren 19. artikulua dioenaren arabera, eskaerak plazak baino gehiago dituzten gradu unibertsitate ikasketa ofizialetan sartu ahal izateko, lehen aipatu diren tituluak dituzten ikasleak Onarpen fasera aurkeztu ahalko dira onarpen nota hobetzeko. Onarpen fase hau bat etorriko da lehen definitu diren irizpideekin.

Unibertsitate publikoek kasuan kasuko onarpen notaren arabera esleituko dituzte plazak. Nota hori behean agertzen den formularen arabera kalkulatu da eta hiru zifra dezimal izango ditu:

$$\begin{aligned} \text{Onarpen nota (GON)} &= \\ &= \text{USN} + K1 \times G1 + K2 \times G2 + K3 \times G3 \end{aligned}$$

USN = Heziketa Zikloko batez besteko nota.

G1, G2 eta G3 = Onarpen faserako gainditu diren gaien kalifikazioak.

K1, K2 eta K3 = Haztapen koefizienteak.

Koefiziente hauek ondoko koadro hauetan ezarritakoak dira UPV/EHUn:

Haztapan koefizienteak

JAKINTZA ADARRA	ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK													
<p>MULTZOAK</p> <p>1 2 3</p> <p>Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da</p>	Batzilergo Iehenetsia	Arte eszenikoak	Artearen Historia	Artearen Oinarriak II	Atzerriko Lehenengo Hizkuntza II	Diseinua	Espainiaren Historia	Euskara eta Literatura II	Filosofiaren Historia	Gaztelania eta Literatura II	Geografia	Grekoa II	Ikus-entzunezko Kultura II	Latina II
Artea	EZ	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1		0,1			0,1	
Artearen historia	EZ		0,2	0,2			0,1	0,1	0,1	0,1	0,1			0,1
Euskal ikasketak	EZ				0,1*			0,2						0,1
Filologia	EZ							0,1	0,1	0,1		0,1		0,2
Filosofia	EZ				0,1			0,1	0,3	0,1				
Historia	EZ		0,2				0,2	0,1	0,1	0,1	0,2			0,1
Ingeles ikasketak	EZ				0,2*			0,1		0,1				0,1
Itzulpengintza eta interpretazioa	EZ				0,2			0,2		0,2				0,2
Kultura ondareen zaintza eta zaharberritzea	EZ	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1		0,1			0,1	
Sorkuntza eta diseinua	EZ	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1		0,1			0,1	

* Ingelesa.

JAKINTZA ADARRA	ZIENTZIAK									
<p style="text-align: center;">MULTZOAK</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #f8d7da; margin: 2px;">1</div> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #d1ecf1; margin: 2px;">2</div> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #d4edda; margin: 2px;">3</div> </div> <p style="text-align: center;">Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da</p>	Batzilergo lehenetsia: ZIENTZIAK	Atzerriko Lehenengo Hizkuntza II	Biologia	Euskara eta Literatura II	Fisika	Gaztelania eta Literatura II	Geologia	Kimika	Marrazketa Teknikoa II	Matematika II
Biokimika eta Biologia Molekularra	BAI	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1	0,2		0,1
Biologia	BAI	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1	0,2		0,1
Bioteknologia	BAI	0,1	0,2	0,1	0,1		0,1	0,2		0,1
Elikagaien Zientzia eta Teknologia	BAI	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1		0,2		0,2
Fisika	BAI	0,1	0,1	0,1	0,2			0,1		0,1
Geologia	BAI	0,1	0,1	0,1	0,1		0,2	0,2	0,1	0,1
Ingurumen Zientziak	BAI	0,1	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1	0,2		0,1
Kimika	BAI	0,1	0,1	0,1	0,1		0,1	0,2		0,1
Matematika	BAI	0,1		0,1	0,1					0,2

* Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoaren gradu bikoitzera sartzeko, gradu bien haztapenak hartuko dira kontutan.

JAKINTZA ADARRA	OSASUN ZIENTZIAK										
<p style="text-align: center;">MULTZOAK</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #f8d7da;">1</div> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #d1ecf1;">2</div> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #d4edda;">3</div> </div> <p style="text-align: center;">Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da</p>	Batzilergo lehenetsia	Atzerriko Lehenengo Hizkuntza II	Biologia	Euskara eta Literatura II	Filosofiaren Historia	Fisika	Gaztelania eta Literatura II	Gizarte Zientzietan Aplikaturiko Matematika II	Matematika II	Kimika	
	Erizaintza	EZ	0,1	0,2	0,1			0,1			0,1
	Farmazia	EZ	0,1	0,1	0,1		0,1			0,1	0,2
	Fisioterapia	EZ	0,1*	0,2	0,1		0,1				0,1
	Giza Nutrizioa eta Dietetika	EZ	0,1	0,2	0,1			0,1		0,1	0,1
	Medikuntza	EZ	0,1*	0,2	0,1						0,1
	Odontologia	EZ	0,1*	0,2	0,1						0,1
	Psikologia	EZ	0,1	0,3	0,1	0,3		0,1	0,3	0,3	

* Ingelesa.

JAKINTZA ADARRA	GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK																
MULTZOAK <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin: 5px 0;"> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #f08080;">1</div> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #add8e6;">2</div> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; background-color: #90ee90;">3</div> </div> Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da	Batzilergo lehenetsia	Artearen Oinarriak II	Atzerriko Lehenengo Hizkuntza II	Biologia	Diseinua	Enpresaren Ekonomia	Espainiaren Historia	Euskara eta Literatura II	Filosofia	Fisika	Gaztelania eta Literatura II	Geografia	Gizarte Zientzietan Aplikaturiko Matematika II	Ikus-entzunezko Kultura	Kimika	Latina II	Matematika II
	Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza	EZ	0,1			0,1		0,1		0,1				0,2			
Ekonomia	EZ	0,1			0,1		0,1		0,1				0,2				0,2
Geografia eta Lurralde Antolakuntza	EZ				0,1	0,1	0,1			0,1	0,2	0,1					
Gizarte Antropologia	EZ	0,2	0,2				0,2	0,2			0,2		0,2			0,2	0,2
Gizarte Hezkuntza	EZ	0,2	0,2				0,1	0,2	0,1	0,2	0,2	0,1	0,1				0,1
Gizarte Lana	EZ	0,1	0,1				0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,2	0,2				0,2
Haur Hezkuntza	EZ		0,1				0,1	0,1			0,1		0,2				0,2
Ikus-Entzunezko Komunikazioa	EZ	0,2	0,2		0,2		0,2	0,2			0,2		0,2	0,2		0,2	0,2
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	EZ		0,2	0,2		0,2		0,2		0,2	0,2		0,2		0,2		0,2
Kazetaritza	EZ	0,2	0,2		0,2		0,2	0,2			0,2		0,2	0,2		0,2	0,2
Kriminologia	EZ	0,1	0,1			0,2	0,2	0,1	0,2		0,1		0,2				
Lan Harremanak eta Giza Baliabideak	EZ		0,1*					0,1	0,2		0,1		0,2				
Lehenengo Hezkuntza	EZ		0,1					0,1			0,1		0,2				0,2
Marketina	EZ		0,1			0,1		0,1		0,1			0,2				0,2
Negozioren Gestioa	EZ		0,1			0,1		0,1		0,1			0,2				0,2
Pedagogia	EZ	0,2	0,2				0,2	0,2			0,2		0,2			0,2	0,2
Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa	EZ	0,2	0,2			0,2	0,2	0,2	0,2		0,2	0,2	0,2			0,2	0,2
Publizitatea eta Harreman Publikoak	EZ	0,2	0,2		0,2		0,2	0,2			0,2		0,2	0,2		0,2	0,2
Soziologia	EZ	0,2	0,2			0,2	0,2	0,2	0,2		0,2	0,2	0,2			0,2	0,2
Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa	EZ		0,1			0,1		0,1		0,1			0,2				0,2
Zuzenbidea	EZ		0,1			0,2	0,2	0,1	0,2		0,1						

* Ingelesa.

* EAZ eta Zuzenbidearen gradu bikoitzera sartzeko, gradu bien haztapenak hartuko dira kontutan.

JAKINTZA ADARRA	INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA												
<p style="text-align: center;">MULTZOAK</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; margin: 2px;">1</div> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; margin: 2px;">2</div> <div style="border: 1px solid black; padding: 2px 5px; margin: 2px;">3</div> </div> <p style="text-align: center;">Bloke bakoitzean notarik onena duen irakasgaia hartuko da</p>	Batzilergo lehenetsia: ZIENTZIAK	Artearen Historia	Artearen Oinarriak II	Atzerriko Lehenengo Hizkuntza II	Biologia	Diseinua	Euskara eta Literatura II	Fisika	Gaztelania eta Literatura II	Geologia	Marrazketa Teknikoa II	Matematika II	Kumika
	Arkitektura Teknikoa	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2
Arkitekturaren Oinarriak	EZ	0,2	0,1			0,2	0,1	0,1	0,1		0,2	0,1	
Automobilgintzaren Ingeniaritza	BAI			0,1			0,1	0,1			0,1	0,2	
Energia Berriztagarrien Ingeniaritza	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ing.	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Industria Kimikaren Ingeniaritza	BAI			0,1			0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Industria Teknologiarene Ingeniaritza	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Ingeniaritza Elektrikoa	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Ingeniaritza Elektronikoa	BAI			0,1			0,1	0,2				0,1	0,1
Ingeniaritza Informatikoa	BAI						0,1	0,1				0,3	
Ingeniaritza Kimikoa	BAI			0,1	0,1		0,1	0,1			0,1	0,1	0,2
Ingeniaritza Mekanikoa	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Ingeniaritza Zibila	BAI			0,1			0,1	0,1		0,1	0,1	0,2	0,1
Ingurumen Ingeniaritza	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Itsasketa	EZ			0,1*			0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Rudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza	BAI						0,1	0,1				0,3	
Nautika eta Itsas Garraioa	EZ			0,1*			0,1	0,1			0,1	0,2	0,1
Telekomunikazio Teknologiarene Ingeniaritza	BAI						0,1	0,1			0,1	0,2	0,1

* Ingelesa.

* Gradu bikoitzetara sartzeko, gradu bien haztapenak hartuko dira kontutan.

25 URTETATIK GORAKOAK UNIBERTSITATERA SARTZEKO BIDEA

Etsaminarako matrikula

Matrikula egin ahal izango dute 2018an 25 urteak edo gehiago egingo dituzten pertsonak baldin eta unibertsitatera sartu ahal izateko titulaziorik ez badute.

Izena **2018ko otsailaren 5etik 9ra** eman ahal izango da, campusetako errektoreordetzetan, Sarbide Bulegoetan: Leioan eta Larrako Etxean (Sarriko), eta www.ehu.eus/ helbidean. Matrikularen tasak: **84,43€**, 2017/06/20ko Aginduaren arabera (2017/06/30eko EHAA).

Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen inprimakian edo webgunean.
2. NANaren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten jatorrizkoa eta fotokopia, biok erkatzeko.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitortpena, interesatuak unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena.

Deialdiak

Urtero unibertsitateak sarrera proba bat antolatuko du 25 urtetatik gorakoentzat; proba behin gaindituta, interesatuak aukera izango du hurrengo deialdietan berriro aurkezteko, nota igo nahi balu titulazio jakin batera sartzeko. Halakoetan unibertsitateak azken deialdian lortutako kalifikazioa hartuko du kontutan, baldin eta aurrekoa baino hobea bada eta proba unibertsitate berean egingakoa bada.

Aurtengo proba **2018ko maiatzaren 4an** izango da, **ostiralaz**.

Probaren egitura orokorra

Unibertsitatera sartzeko probak bi fase ditu, bata orokorra eta bestea espezifikoa.

Fase orokorra

Fase honen helburua da ea interesdunek unibertsitate ikasketak modu arrakastatsuan jarraitzeko behar adinako heldutasuna eta egokitasuna duten balioestea. Ondoren aipatzen diren arloekin lotutako lau ariketa egin beharko dira.

- a) **Testu baten iruzkina egin edo egungo gai orokor bat garatu.**
- b) **Gaztelania.**
- c) **Atzerriko hizkuntza**, alemana, frantsesa, ingelesa, italiara edo portugesararen artean aukeratzeko.
- d) **Euskara.** Euskarako etsaminaz salbuesteko eskatu ahal izango da honako arrazoi hauengatik:
 - 1971/01/01a baino lehen jaioa izana.
 - Derrigorrezko irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidego-tik kanpo egina izana.
 - Ohiz kanpoko beste kausa batzuk, behar bezala dokumentatuak, salbuespen hori justifikatzen badute. Nagusiak Unibertsitate Sartzeko Probak Antolatuzko Batzordeak ebatziko ditu eskariak eta, eskuordetzeaz, batzordeburuak edo UPV/EHUko Unibertsitate Sartzeko Probetako zuzendariak.

Salbuesteko eskari guztiek izan beharko dute alegatzen duten egoera justifikatzeko dokumentaziorik.

Salbuespena eskatzeko azken eguna **2018ko martxoaren 28a** izango da.

Fase espezifikoa

Probaren fase espezifikoaren bidez, ikaslearen trebetasuna, gaitasuna eta ahalmena neurtu nahi dira jakintza-adar bakoitzari lotutako unibertsitateko ikasketak ondo burutuko baditu.

Bost aukera izango dira, graduko ikasketa ofizialak beren baitan dituzten bost jakintza arloekin lotutakoak. Fase honetan ikasleak bi gai aukeratuak ditu adar bakoitzetik. Hona jakintza-adarrak eta bakoitzaren gaiak:

- A) **Arteak eta giza zientziak:**
Irakasgaiak: Artearen Historia, Irudigintza Artistikoa, Historia eta Filosofiaren Historia.
- B) **Zientziak:**
Irakasgaiak: Matematika, Fisika, Kimika eta Biologia.

C) **Osasun Zientziak:**

Irakasgaiak: Gizarte eta Osasun Zientzietarako Matematika, Fisika, Kimika eta Biologia.

D) **Gizarte eta Lege Zientziak:**

Irakasgaiak: Gizarte eta Osasun Zientzietarako Matematika, Enpresa Ekonomia, Historia eta Geografia.

E) **Ingeniaritza eta Arkitektura:**

Irakasgaiak: Matematika, Fisika, Kimika eta Irudigintza Teknikoa.

Fase espezifikoak egin beharko dute norberak hautatutako aukeran, eta sarbideari dagokionean, ahal delarik, aipatutako jakintza arlo bakoitzarekin lotuta unibertsitateak eskainitako unibertsitate ikasketak egokituko zaizkie.

Izena ematerakoan adierazi beharko dute zeintzuk irakasgaitan egin nahi duten etsamina.

Ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan egin ahal izango dira.

Probaren kalifikazioa

Azken kalifikazioa fase orokorrean eta espezifikoan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da: 0tik 10era bitarteko kalifikazioa izango da bi dezimalekin adierazia eta ehunekorik hurbilenekeora biribildua, eta hirugarren dezimala 5 denean, ehunekorik handienera.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gutxienez bost bat lortu beharko da azken kalifikazioan, eta batez bestekoa egiteko, beharrezkoa izango da fase bakoitzean (orokorrean eta espezifikoan) gutxienez lau bat ateratzea.

Ikasleak proba osora aurkeztu ahal izango dira ondorengo deialdietan, kalifikazioa hobetzeko. Deialdi berrian lortutako kalifikazioa hartuko da kontuan, betiere aurrekoa baino hobea bada.

Erreklamazioa

Kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik hiru lanegunen epean, erreklamazioa egin ahal izango da unibertsitateari zuzendutako idazki arrazoitu baten bidez.

45 URTEATIK GORAKOAK UNIBERTSITATERA SARTZEKO BIDEA

Etsaminarako matrikula

Matrikulatu ahal izango dira 45 urtetatik gorako pertsonak, baldin eta **unibertsitatera beste bide batetik sartzeko titulazio akademikorik ez badaukate** eta aipatutako adina 2018an beteta edo betetzen badute. Proba gaindituta, berau egin duteneko unibertsitatera sartu ahal izango dira baina ez besteetara.

Izena **2018ko otsailaren 5etik 9ra** eman ahal izango da, campusetako errektoreordetzetan, Sarbide Bulegoetan: Leioan eta Larrako Etxean (Sarriko), eta www.ehu.eus/ helbidean. Matrikularen tasak: **84,43€**, 2017/06/20ko Aginduaren arabera (2017/06/30eko EHAA).

Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen inprimakian edo webgunean.
2. NANaren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten jatorrizkoa eta fotokopia, biok erkatzeko.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitortpena, interesatuak unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena

Probaren egitura orokorra

Aurtengo proba **2018ko maiatzaren 4an** izango da, **ostiralaz**. Unibertsitatera sartzeko probak bi fase ditu.

Lehenengo fasea

Fase honen helburua izango ea interesdunek unibertsitate ikasketak modu arrakastatsuan jarraitzeko behar adinako heldutasuna eta egokitasuna duten balioestea, bai eta arrazoiak eman eta

adierazpenak egiteko gaitasuna ere. Beheko arloekin lotutako hiru ariketa egin beharko dira:

- a) **Testu iruzkina.**
- b) **Gaztelania.**
- c) **Euskara.** Ariketa honetarako salbuespena eskatu ahal izango dute, 25 urtetatik gorakoan atalean adierazitako egoeraren bat justifikatzen bada.

Salbuesteko eskari guztiek izan beharko dute alegatzen duten egoera justifikatzeko dokumentaziorik. Salbuespena eskatzeko azken eguna **2018ko martxoaren 28a** izango da.

Ariketak 25 urtetatik gorakoak unibertsitatean sartzeko probetako berak izango dira, egun eta leku berean egingo dira eta epaimahaia ere berak izango dira.

Bigarren fasea

Elkarrizketa pertsonala. Ikasketa jakin batzuetara sartzeko gaitasunak eta jakintza balioetsiko dira. Elkarrizketa pertsona adituek egingo dute eta emaitza Gai edo Ez Gai izango da. Lehenengo fasea gainditu dutenek beste inork ez du parte hartuko elkarrizketan.

Probaren kalifikazioa

Azken kalifikazioa ariketetan lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da: 0tik 10era bitarteko kalifikazioa izango da bi dezimalekin adierazia eta ehunenekorik hurbilenera boro-bildua, eta hirugarren dezimala 5 denean, ehunenekorik handienara.

Unibertsitatean sartzeko proba osoa gainditzeko, gai kalifikazioa lortu behar da elkarrizketan, eta gutxienez bost bat azken kalifikazioan, eta batez bestekoa egiteko, beharrezkoa izango da ariketa bakoitzean gutxienez lau bat ateratzea.

Erreklamazioa

Kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik hiru lanegunen epean, erreklamazioa egin ahal izango da unibertsitateari zuzendutako idazki arrazoitu baten bidez.

LAN ESPERIENZIA EGIAZTATUZ SARTZEKO BIDEA

Unibertsitatera bide honetatik sartu ahal izateko, interesdunak lan esperientzia izan beharko du egin nahi dituen ikasketen arloan, unibertsitatera beste bide batzuetatik sartzeko aukera ematen dion titulaziorik izen ez eta 2018an 40 urte betetzea edo beteak dituelarik.

Sarbidea unibertsitateak eskainitako ikasketa jakin batzuetarako izango da. Izena **2018ko otsailaren 5etik 9ra** eman ahal izango da, campusetako errektoreordetzetan edo Sarbide Bulegotan: Leioan eta Larrako Etxean (Sarriko).

Eskaerari buruzko erabakia unibertsitateko ikastegiko dekanok edo ikastegiko zuzendariak hartuko du, errektorearen eskumenak eskuordetuta, ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordeak zehaztutako irizpide objektiboek jarraituz. Batzorde horrek zehaztuko du zein esperientzia mota eskatuko den ikasketa bakoitzerako, nola egiaztatu beharko den esperientzia hori, nola balioetsiko den eta zeren arabera erabakiko den eskatzaileen hurrenkera. **Edozelan ere, interesatuak elkarriketa egin beharko du**, gerora ere errepikatu ahal izango delarik.

Lan esperientziak egindako balorazioak betiko balioko du unibertsitateko ikasketa jakin horietarako.

Ikastegiak egindako balioespena, eskari egilearen espedientearekin batera, Sarbide Bulegora bidaliko da unibertsitatean sartzeko prozedura orokorrari ekiteko.

Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen inprimakian.
2. NANaren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten jatorrizkoa eta fotokopia, biok erkatzeko.
3. Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumentuaren fotokopia.
4. Zinpeko aitortpena, interesatuak unibertsitatera sartu ahal izateko titulazio edo ikasketarik ez daukala dioena.
5. Curriculum vitae, behar bezala dokumentaturik.
6. Lan bizitzaren txostena.

Bide honetatik ikasketa zehatz batzuetara sartu ahal izango da, besterik ez, hau da, ikasketa-planean hala jasota eta araututa daukaten graduatarak. Honako hauek dira tituluak:

Graduak	Ikastegiak
Automobilgintzaren Ingeniaritza	Gasteizko Ingeniaritzako UE
Nautika eta Itsas Garraioko Gradua Itsasketako Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola (Portugalete)
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gasteizko Ingeniaritzako UE
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako UE Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	Gasteizko Ingeniaritzako UE
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)
Arkitektura Teknikoko Gradua	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Ingeniaritza Zibileko Gradua	Bilboko Ingeniaritza Eskola Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
Ingeniaritza Kimikoko Gradua Geologiako Gradua	Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Kimikako Gradua	Kimika Fakultatea Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Farmaziako Gradua	Farmazia Fakultatea
Erizaintzako Gradua	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea-Donostia Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea-Leioa Erizaintzako U.E.-Vitoria-Gasteiz
Enpresen Administrazio eta Zuzendari-tzako Gradua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Bilbo Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Donostia Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Gasteiz

Graduak	Ikastegiak
Negozioen Kudeaketako Gradua Ekonomiako Gradua Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoaren Gradua Marketineko Gradua	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Bilbo
Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoaren Gradua Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua Kazetaritzako Gradua Publizitateko eta Harreman Publikoaren Gradua Soziologiako Gradua	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Zuzenbideko Gradua	Zuzenbide Fakultatea Zuzenbide Fakultatea-Bizkaiko Atala
Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea-Leioa
Kriminologiako Gradua	Zuzenbide Fakultatea
Arteko Gradua Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	Arte Ederren Fakultatea
Haur Hezkuntzako Gradua Lehen Hezkuntzako Gradua	Bilboko Hezkuntza Fakultatea Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Gizarte Hezkuntzako Gradua	Bilboko Hezkuntza Fakultatea Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Gizarte Antropologiako Gradua Filosofiako Gradua Pedagogiako Gradua	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Gizarte Langintzako Gradua	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea-Gasteiz
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Filologiako Gradua Ingeles Ikasketetako Gradua Euskal Ikasketetako Gradua Geografiako eta Lurralde Antolaketaren Gradua Historiako Gradua Artearen Historiako Gradua Itzulpen-gintza eta Interpretazioko Gradua	Letren Fakultatea

BESTE HEZKUNTZA SISTEMA BATZUETATIK DATOZEN IKASLEAK

Atzerriko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak UPV/EHUko titulu ofizialetara sartu ahal izango dira ondoko baldintza hauen arabera:

I. Batxilergoko titulua edo ikasketak Espainiako batxilergora homologatuta dituzten ikasleak

A. Europako batxilergoko titulua edo nazioarteko batxilergoko titulua duten ikasleak, Europar Batasuneko estatuetakoko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak edo arlo honetan aplikagarriak diren nazioarteko elkarrekikotasun hitzarmenak dituzten beste estatu batzuetako hezkuntza sistemetatik datozenak (Norvegia, Liechtenstein, Suitza, Andorra edo Txina), baldin eta betetzen badituzte kasuan kasuko estatuko unibertsitateetara sartzeko eskatzen zaizkien baldintza akademikoak:

1. Unibertsitateetara sartzeko agiria aurkeztu beharko dute, UHUNek emandakoa.
2. Onarpen nota hobetu ahal izango dute, Unibertsitateetara Sartzeko Ebaluazioaren Onarpen fasea aurkeztuta.
3. Eskariak ordenatuko dira onarpen nota baloratzeko irizpidea aplikatuta, kontuan hartuta unibertsitateetara sartzeko probako nota eta Onarpen faseko irakasgaietan lortutako nota, baldin eta ikasleak proba horiek egin baditu.

